# DONEJAKUE BIDEA
# CAMINO DE SANTIAGO




## KOSTALDEKO BIDEA
EL CAMINO DE LA COSTA




DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

## SARRERA
INTRODUCCIÓN

### KOSTALDEKO BIDEA
EL CAMINO DE LA COSTA

Kostaldeko Bidea deritzonak Gipuzkoako itsasertza zeharkatzen du, ondoren Bizkaiko mendebaldeko mugetan sartzeko. Marinelen herriak eta nekazaritza-eremuak bateratzen dituen bidea da, hiri handiek eta baserri giroko herrixkek osatzen duten ingurune liluragarria. Aurreneko zatia Gipuzkoako itsasertz malkartsuari dagokio, Bidasoa ibaiaren ahotik Bizkaiko mugara arte, alegia. Zonak malkartsuak desagertu egiten dira Bizkaian Markina-Xemeinetik sartzen garenean, eta Bizkaiko Lea-Artibai, Busturialdea eta Uribeko eskualdeetako bazterrak ezagutuko ditugu.

Euskadi heze osoa dago bide honetan. Ezagunena, eta oraindik ezagutzeke dagoena.

*El denominado Camino de la Costa recorre el litoral guipuzcoano para adentrarse en los límites occidentales de Bizkaia. En esta ruta, conviven la Euskadi marinera y la agrícola, así como la urbana y la rural. Atraviesa en su primer tramo el litoral guipuzcoano, desde la desembocadura del Bidasoa hasta el límite con Bizkaia, caracterizado por un gran desnivel. Las zonas abruptas desaparecen en cuanto nos adentramos en Bizkaia a través de Markina-Xemein y conocemos los rincones de las comarcas vizcaínas de Lea-Artibai, Busturialdea y Uribe.*

*Toda la Euskadi húmeda está en este camino. La más conocida, y la que todavía está por descubrir.*

### BARRUALDEKO BIDEA
EL CAMINO DEL INTERIOR

Gipuzkoa eta Araba zeharkatzen dituen Barrualdeko Bideak primeran islatzen du Euskadiren aniztasuna. Kontraste handiko ibilbidea denez, gure herria zazpi egunetan ezagutzeko parada eskaintzen du. Baso hezeak, baratze emankorrak, lehorreko lurrak, lautada amaigabeak, industria ugari dituzten herriak eta landa-paisaiak dira, besteak beste, bidean topatuko ditugun altxorrak. Hitz gutxitan esateko, erromesak aniztasun historiko, sozial, ekonomiko eta kultural ikusgarriari behatzeko aukera ezin hobea izango du. Azpimarratu beharra dago, halaber, erromatarren garaiaz geroztik, Penintsula iparraldeko komunikazio-ardatz nagusienetakoa izan dela ingurune hau.

Duela bi mendeko protagonismoa galdu duen arren, ibilbide honek bide berde eta doratu interesgarria izaten jarraitzen du, Gipuzkoako ibarrak eta Arabako lautadak bezalaxe, ardatz komun bat eratuz, non eta aniztasunak, ibiltaria, banatu baino gehiago, aberastu egiten duen.

*El Camino del Interior que atraviesa Gipuzkoa y Álava es tal vez uno de los mejores espejos del País Vasco, un itinerario para conocer en apenas siete días un país heterogéneo y enormemente variado. Bosques húmedos, huertas fértiles, extensiones de secano, llanadas interminables, localidades fuertemente industrializadas, paisajes rurales y un sinfín de bellas estampas más forman parte del entorno. Al fin y al cabo, el peregrino podrá contemplar una enorme diversidad geográfica, histórica, social, económica y cultural en tan sólo 200 kilómetros. Asimismo, cabe destacar que esta ruta ha sido, desde la época romana, uno de los más importantes ejes de comunicación del norte peninsular.*

*A pesar de haber perdido el protagonismo de hace dos siglos, esta ruta sigue siendo un interesante camino verde y dorado, como los valles guipuzcoanos y las llanuras alavesas, que constituye un eje común en el que la diversidad, lejos de dividir, enriquece al caminante.*

### AHAZTUTAKO BIDEA
EL CAMINO OLVIDADO

Kostaldeko Bidea eta Frantziako Bidea lotzeko beste aukera bat dugu jende gutxik erabiltzen duen bide hau; Bilbotik abiatzen da eta Enkarterriko Cadagua ibaiaren harana erakutsiko digu Gaztelako lurretan sartu aurretik.

Cadagua ibaiaren ur gardenak aurkituko ditugu behin eta berriz gure bidean han-hemenka barreiatutako fabrika zahar batzuk erakusten dizkigun haran berde eta estuan gora emeki igotzen garen heinean. La Roblako tren mitikoaren ibilbide zaharraren zati handi bat izango du erromesak bere oinetan. Ibilbidearen zenbait tartetan bizikleta-errei atsegin bat zeharkatzeko aukera ere izango du ibiltariak. Bizkaia atzean uzten duenean, Burgosko eta Palentziako paraje lasaietatik jarraituko du bideak Leongo probintziako Villafranca del Bierzo herriraino, Galiziarako sarreran ia-ia.

*Este poco transitado Camino que constituye otra opción para unir el Camino de la Costa y el Camino Francés, parte de Bilbao y nos descubre el encartado valle del Cadagua, antes de internarse en tierras castellanas.*

*Las cristalinas aguas del río Cadagua salen cada poco a nuestro paso a medida que se remonta suavemente el verde y estrecho valle salpicado con algunas viejas fábricas. El que peregrina encontrará bajo sus pies en gran parte el antiguo trazado del mítico tren de La Robla, reconvertido en varios tramos en un agradable carril-bici. Cuando deje atrás Bizkaia, el Camino continuará por tranquilos parajes de Burgos y Palencia hasta Villafranca del Bierzo en la provincia de León, casi ya en la entrada a Galicia.*

## 1 Irun / Hondarribia ▶ Donostia-San Sebastián

24,6 Km. | 883 m. | 6h 45'




Iparreko bidearen hasiera sinbolismoz zamatua dago: Bidasoa ibaia –muga natural horrek bereizten ditu Frantzia eta Espainia– gainetik gurutzatzen duen Santiago zubitik abiatzen da Bidea, edo Hondarribitik, ibaia barkuz gurutzatzen bada. Errepide eta tren ibilbide garrantzitsuak jaiotzen eta hiltzen dira hemen. Erdi Arotik hasita, erreferentzia gune garrantzitsua izan da Santiagora heltzearekin amets egiten zuten erromesentzat. Lehen etapa hau bide guztian aurkituko ditugun ezaugarrien laburpen perfektua da: mendilerroak itsasoaren ertzean (Jaizkibel eta Ulia); nahitaez gurutzatu beharreko bokaleak (Pasaiako badia); itsasertzeko bista bikainak dituzten bide-zidorrak; arrantzale herriak (Hondarribia, Pasai Donibane eta Pasai San Pedro), eta eguna amaitzeko, Donostia, xarma natural ukaezineko lekua, errege-erreginek uda igarotzeko hautatutako hiria. Pirinio mendiak itsasertzetik igarotzeko aukera ematen duen pasabide honek, gizakientzat ez ezik, garrantzi handia du txori migratzaileentzat ere, Txingudiko paduretan urtero geraldia egiten duten hegaztiek erakusten duten bezala.

*El comienzo del Camino del Norte no puede estar más cargado de simbolismo: arranca en el puente de Santiago que salva el río Bidasoa, frontera natural que divide Francia de España, o en Hondarribia, si se quiere cruzar en barca. Aquí nacen y mueren importantes vías de comunicación de tráfico rodado y férreo, siendo lugar de referencia desde la Edad Media para los que peregrinaban soñando con llegar a Santiago. Esta primera etapa es una perfecta síntesis de las constantes que se hallarán a lo largo de todo el trayecto: cordilleras montañosas junto al mar como en el caso de Jaizkibel o Ulía; desembocaduras que hay que sortear como la de la Bahía de Pasaia; senderos con excelentes vistas sobre el litoral, pueblos marineros como Hondarribia, Pasai Donibane y Pasai San Pedro y un colofón ideal, Donostia-San Sebastián, ciudad de innegable encanto natural que fue elegida como lugar de veraneo por reyes y reinas. Este paso fronterizo que permite salvar los Pirineos a pie de costa, presume de una importancia secular no sólo para el ser humano, sino también para las aves migratorias que, anualmente, hacen un alto en los humedales de Txingudi.*



## 2 Donostia-San Sebastián ▶ Zarautz

22,8 Km. | 573 m. | 5h 30'




Behin Gipuzkoako hiriburua atzera utzi denean, Bideak izadiaren kolorea hartzen du berriro, hiru mendi anaitu igaroko baititu. Igeldo, Mendizorrotz eta Kukuarri lagun dituela egingo du aurrera erromesak hamabost bat kilometroz, garai batean balea ehizari emaniko Orio herria bidean topatu arte. Mendikate zuhaitzik gabea zeharkatzen duen bideak Kantauri aldeko paisaia ederrak eskaintzen ditu beste behin. Inguru horietan, baserri bakartiak, azienda zenbait eta landarediak irentsiko dituela diruditen bidezidorrak nagusitzen dira. Orio* ere Donejakue Bideari aspaldi loturiko herria da, pendiz handian kokaturiko alde zaharra eta, oraingoan, bokalea zeharkatzeko zubia dituena. Donejakue Bideak, Zarautz baino lehentxeago, Talaimendi muinoan gora egiten duela ageri diren mahatsondoei Gipuzkoako itsasertzeko urre zuria darie: txakolina. Zarautz da hurrengo geltokia; alegia, Kantauri itsasoko udako perletako bat, bainu eta surf zaleek gehien estimatzen duten hondartzetakoa duena.

*Una vez se abandona la capital guipuzcoana, el Camino vuelve a recuperar su rostro agreste y lo hace a través de tres montes hermanados. Igeldo, Mendizorrotz y Kukuarri que acompañan el peregrinaje durante una quincena de kilómetros hasta que la, antaño, localidad ballenera de Orio sale a su paso. El recorrido por esta cordillera pelada vuelve a regalar preciosas estampas cantábricas. Aquí, los caseríos solitarios, algunas explotaciones ganaderas y los senderos acosados por la vegetación son la norma. Orio* es otro de esos pueblos que goza de vetustas credenciales jacobeas, con un casco antiguo en franca pendiente y otra desembocadura que, esta vez, se salvará gracias a un puente. A medida que la Ruta Jacobea se acerca a Zarautz y asciende por la colina de Talaimendi aparecen ya las viñas que hacen posible el oro blanco de la costa guipuzcoana: el txakoli. La siguiente parada es Zarautz, otra de las perlas veraniegas del mar Cantábrico, con uno de los arenales más apreciados por bañistas y amantes del surf.*

*Done Jakue Bideari buruzko Interpretazio-Zentroa
*Centro de interpretación del camino de Santiago*
Kale Nagusia 17, Orio (Gipuzkoa) • www.oriodonejakue.net • T. 943 830 904



## 3 Zarautz ▶ Deba

21,3 Km. | 826 m. | 6h




Mendi artean doa bidea, Kantauriko urak bistatik galdu gabe, Gipuzkoako arrantza-portu nagusiak lotuz. Itsas giroan bizi diren herriak dira etaparen hasiera eta amaierakoak, baina bada besterik ere tartean –Itziarreko gaina– hurrengo egunetan ezagutuko dugun landa giroko Euskadi zer den igartzeko bidea emango diguna. Aurreko egunetako muino etzanen ordez, ibilbide aldapatsuagoak etorriko dira, kilometro gutxi batzuk iparrerago itsasoratzen diren erreka eta ibaiek nahieran moldatuak. Hala Getaria nola Deba, garai batean, itsasoz iritsi eta kostako bidea hartzen zuten erromesen sarrerako ate nagusienetakoak ziren. Mendeak dira inguruetako ikur erlijioso ugariak gurtzen dituztela bertakoek eta bisitariek, Gipuzkoan jarraitzaile gehien dituen eta zaharrenetakoa den ama birjina zuriari buruz entzundakoak erakarrita.

*El Camino prosigue monte a través, sin perder de vista las aguas del Cantábrico y haciendo altos en los principales puertos pesqueros de Gipuzkoa. La etapa arranca y finaliza en enclaves marineros típicos pero abre un pequeño paréntesis –el alto de Itziar– para acercarse a la Euskadi rural con la que familiarizarse los próximos días. Las suaves colinas de las jornadas previas darán paso a itinerarios más abruptos, labrados al antojo de los arroyos y ríos que desembocan unos pocos kilómetros más al norte. Tanto Getaria como Deba fueron, en la antigüedad, una importante puerta de entrada para quienes llegaban por mar y luego continuaban, a pie, por el trayecto de costa. No faltan tampoco iconos religiosos a los que se rinde culto desde hace siglos tanto por fieles del lugar como por visitantes que arriban a santuarios como el de Itziar, seducidos por las historias que se cuentan acerca de su virgen blanca, una de las más antiguas y veneradas de Gipuzkoa.*

## 4 Deba ▶ Markina-Xemein

24,2 Km. | 886 m. | 6h 30'




Deba ibaia itsasoarekin bat egiten, horixe izango da Euskal Herriko itsasertzaren azken irudia Kantabriako mugara iritsi arte. Aurrerakoan, Euskadiren beste alde bat bistaratzen du bideak: menditsua, basotsua, itzaltsua, gogorragoa eta, aldi berean, berezi eta aparta. Bide-zati horretan pinudi sarriak, auzo bidexkak eta bakartasunera biltzeko gogoa ematen duen giroa dago. Gutxi dira Iparreko Bidean zibilizaziotik hauxe bezain urrun dauden tarteak, naturatik hain gertu daudenak. Gipuzkoako kostaldeko bidezidorrean azken urratsak egin ondoren, Bizkaiko landagunean barrena joango gara. Paisaia aldatu ez arren, beti ageri dira gauza berriak: egindako lanak eginda, Markina-Xemein dotorea behar bezalako saria da.

*La visión del río Deba fundiéndose con el mar será la última estampa del litoral vasco que se podrá contemplar hasta la frontera con Cantabria. A partir de ahora, el camino desvela otra cara de Euskadi: montañosa, boscosa, en penumbra, mucho más exigente y, a la vez, singular y hermosa. Este tramo se caracteriza por tupidos pinares, caminos vecinales y una atmósfera que invita a la soledad. Pocos trechos del Camino del Norte hay tan alejados de la civilización como éste que atravesamos, en contacto directo con la naturaleza. El sendero abandona definitivamente la Gipuzkoa costera y se sumerge en la Bizkaia rural. El paisaje es el mismo, pero las sorpresas no cesan: la señorial Markina-Xemein es el premio ideal en esta parte del trabajo.*


Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO
Euskadi, auzolana, bien común
turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/
Edición: xxxxx / Tirada: xxxxx / Impresión: xxxxx / D.L.: xxxxx
Argitaraldia: xxxxx / Ale-kopurua: xxxxx / Inprimaketa: xxxxx / Lege-gordailua: xxxxx
% 100 birziklatutako paperean inprimatua, FSC ziurtagiriduna.
Impreso en papel 100% reciclado, que cuenta con la certificación FSC.





## 5 Markina-Xemein ▶ Gernika-Lumo

24,8 Km. | 772 m. | 6h 50'




Etapa hasiera gutxi dago Markina Xemeingoa bezain bizigarria dena. Hasteko, Bolibar herri ederra eta, jarraian, Bizkaian parerik ez duen monumentu erlijiosoa: Ziortzako kolegio-eliza zaharra, bederatzi mende baino gehiago daramatzana Santiagora doazen erromesen urratsen lekuko izaten. Gorontzugaraiko basoetan barrena doan tartea izango da landa gunean egingo dugun azkena, Gernika hiri historikora garamatzan bidean, haran jendeztatuetara eta han hemenkako etxaldeetara itzuli aurretik. Aurrerakoan, Euskal Herriko paisaia nagusia izango dugu begi-bistan –baserriak han hemenka, larreak, elizaren inguruan eraikitako etxeak eta, gehienetan, pilotalekua– aldaketa geografiko nabarmenik ez duena. Trantsizio tarte ugariko etapa da eta kilometro gutxika, bai Munitibar aldean, bai Zarra aldean, hainbat benta nahiz iturri dago, kantinplora bete edota bertakoekin hitz egin nahi izanez gero. Juntetxea eta Gernikako haritz historikoa bezalako saririk ezin liteke imajinatu honakoa bezalako etapa batean.

*Pocos inicios hay tan estimulantes como el que aguarda a la salida de Markina-Xemein. Primero, el idílico pueblo de Bolibar y, luego, un monumento religioso único en Bizkaia: la antigua Colegiata de Ziortza, que lleva más de nueve siglos siendo testigo del paso de caminantes que marchan hacia Santiago. Los bosques de Gorontzugarai serán la última concesión rústica antes de regresar a las vaguadas habitadas y aldeas arracimadas que prologarán la histórica villa de Gernika. A partir de ahora, se impondrá el paraje vasco por excelencia –ejemplificado en caseríos, pastos y pequeñas concentraciones de casas en torno a una iglesia y, en la mayoría de los casos, un frontón-, sin apenas sobresaltos geográficos. La etapa regalará tramos de transición y cada pocos kilómetros, ya sea en Munitibar o en Zarra, encontraremos ventas o fuentes en las que poder llenar la cantimplora o cruzar palabras con las gentes del lugar. La Casa de Juntas y el histórico roble de Gernika es el mejor de los premios imaginables para esta jornada.*

## 6 Gernika-Lumo ▶ Bilbao

29 Km. | 897 m. | 8h




Euskal Herriko hiri nagusienetakoa den Bilbo gertu izateak, bidaztiaren animua piztuko du, baina paisaiak izaera moldakaitza nola galtzen duen eta gizakiaren eskuak eraldatuarena nola hartzen duen ikusiko du. Gernika utzi ondoren, Bizkaiko herri historikoen zerrenda hasten da, denak ere foruen ohitura zaharrarekin eta herri arteko harreman komertzialekin zerikusia dutenak. Aurrerakoan, jauntxo feudalak komunitatearen eskubideak eta askatasunak bermatzeko egin behar zuen Zinpeko ibilbidea hartuko dugu, baina kontrako norabidean. Aipaturiko ibilbidearen abiapuntua Bilbon zen eta Larrabetzu eta Gernika zeharkatzen zituen Bermeora ailegatu arte. Paisaia eraldatu den arren -batez ere, Txorierrin- muino segidak ez du etenik eta Pozueta eta Aretxabalaga gainak gainditu ondoren, Zamudioztarren galtzadan egingo dugu aurrera Iturritxualdeko tontorrera iristeko. Horixe utzi behar da atzean Euskadiko hiriburu industriala izan zen Bilbora ailegatzeko. Begoñako Amaren Santutegia zain dugu bertan.

*La proximidad de otra gran capital vasca, Bilbao, despertará los ánimos de quien, poco a poco, atestiguará cómo el paisaje pierde su carácter agreste y empieza a ser domado por la mano humana. Una vez se abandona Gernika, comienzan a sucederse los pueblos históricos de Bizkaia, ligados a la tradición secular de los fueros y a los antiguos vínculos comerciales entre villas. A partir de ahora, se recorre, a la inversa, la ruta Juradera que había de cumplir el señor feudal para garantizar los derechos y libertades de la comunidad. Esta comenzaba en Bilbao, pasaba por Larrabetzu, Gernika y acababa en Bermeo. A pesar de la domesticación del paisaje –más palpable en el Txorierri–, los accidentes geográficos no tocan a su fin y, tras superar los altos de Pozueta y Aretxabalaga, la calzada de los Zamudianos nos conducirá hasta la cima de Iturritxualde, último escollo antes de llegar a la que fue capital industrial de Euskadi, Bilbao. El Santuario de Nuestra Señora de Begoña espera al otro lado.*

## 7 Bilbao ▶ Portugalete

19,6 Km. | 445 m. | 4h 45'




Aurrerantzean, Portugaletera iritsi arte behintzat, basoak zementuzkoak dira, bidezidorrak asfalto eta lauzazkoak eta soinuak, aldiz, trafikoarenak eta gaurko hiriek ateratzen dituztenak. Bizkaiko hiriburua atzera utzi bezain laster, Kobeta mendia igo behar da. Hiria hegoaldetik ixten duen gainak zeharkatu behar dugun Nerbioi haraneko bista argigarria eskaintzen du. Euskadiko eskualde horretan XIX. mende amaieratik aurrera eman zen hazkunde izugarriak eragin latzak izan ditu garai bateko erromesek ezagutu zuten ingurunean. Oraindik badiraute erreferentzia esanguratsu batzuek, hala nola Bilbo eta Barakaldoren arteko muga naturala den Cadagua ibaiaren gaineko Deabruaren Zubia edo Santa Agedako erdi aroko galtzada eta ermita, baina lo-auzoak eta antzinako Labe Garaietatik dirauten tximiniak izango dira nagusi. Ibilbide ofizialetik kanpo, hainbat erromesek itsasadarraren edozein bazterretatik jarraitzea erabakitzen dute Portugaletera iritsi arte, ibilbidea laburragoa eta lauagoa delako, baina hiritarragoa ere bada. Alde batetik nahiz bestetik, hiribildu horretan Bizkaia Zubiak egiten die ongietorria, hau da, UNESCOk Munduko Ondare gisa sailkatutako ingeniaritza-obrak.

*A partir de ahora, y hasta Portugalete, los bosques más comunes serán los de cemento; los senderos más habituales, los de asfalto y baldosa; y los sonidos que le acompañarán, los del tráfico y la urbe moderna. Nada más atravesar la capital vizcaína, se asciende al monte Kobeta, que cierra la ciudad por el sur y regala una ilustradora panorámica del valle del Nervión que nos disponemos a recorrer. El espectacular crecimiento que experimentó esta parte de Euskadi desde finales del siglo XIX ha condicionado severamente el entorno que conocían quienes peregrinaban antiguamente. Perduran las referencias como el puente del Diablo sobre el río Cadagua – frontera natural entre Bilbao y Barakaldo – o la calzada medieval y ermita de Santa Águeda, pero la norma serán los barrios dormitorio y las chimeneas supervivientes de los antiguos Altos Hornos. Fuera del trazado oficial, algunos peregrinos optan por seguir la ría por cualquiera de sus márgenes por un trazado más corto y llano, aunque más urbano, hasta Portugalete. Por uno u otro lado, en esta villa les da la bienvenida el Puente Bizkaia, obra de ingeniería considerada Patrimonio Mundial por la UNESCO.*

## 8 Portugalete ▶ Pobeña

13,5 Km. | 140 m. | 3h




Berriz ere Kantauri itsasoa agertuko da zeruertzean. Euskadiko barnealde berdea zeharkatu eta arima industriala ikusi eta gero, Bideak Bizkaia utzi eta kresalarekin bat egiten du. Euskal Herriko lurretan egingo den azken etapa gorabehera gutxikoa da, Portugaleten abiatu, Abanto-Zierbena zeharkatu eta La Arena hondartzara iristen den bidegorritik egitekoa da eta. Ibilbide laua da, aldapa etzanekoa, inguruko Serantes edota Montaño mendiak saihesten dituena eta A-8 edo Hegoaldeko saihesbidea bezalako azpiegitura erraldoietarako bistak dituena. Pobeña atzera utzi eta gero, Iparreko Bidea zati ederrenetako batean barneratuko da: garai batean La Arenako zama-moilara merkantzia zeraman meatze-trenaren ibilbide berreskuratua. Gaur, garai batean zenaren aztarna baino ez da geratzen, Bide Berde horrek zeharkatzen duen itsasertzerako bista ederrez gain.

*El Cantábrico vuelve a asomar por el horizonte. Tras el recorrido por el corazón verde de Euskadi y el reciente vistazo a su alma industrial, el Camino abandona Bizkaia para reencontrarse con el salitre marino. El recorrido en esta última etapa vasca discurre sin apenas sobresaltos, por un cómodo carril bici que parte de Portugalete, discurre por Abanto-Zierbena y llega hasta la playa de La Arena. El trazado es eminentemente llano, con suaves pendientes, evitando las elevaciones de los alrededores como el monte Serantes o el Montaño, y alternando panorámicas con grandes vías de comunicación como la autopista A-8 o la Variante Sur. Una vez se deja atrás Pobeña, el Camino del Norte regala uno de sus tramos más excelsos: el recorrido ahora recuperado del antiguo ferrocarril minero que transportaba la mercancía hasta el cargadero de La Arena. Hoy sólo queda su recuerdo y unas preciosas panorámicas de la línea de costa que recorre esta Vía Verde.*

## AHAZTUTAKO BIDEA
EL CAMINO OLVIDADO



## 1 Bilbao ▶ Balmaseda

34,2 Km. | 418 m. | 7h 35'




Bizkaiko lurraldearen hiriburutik abiatuko da bere lehenengo egunean **Ahaztutako Bidea.** Balmasedara hurbilduko gaitu etapa honek, Lurralde Historiko horretan sortu zuten lehenengo hiribildura, hain zuzen ere. Mendeetan zehar bere ondare historiko eta artistiko aberatsa gordetzen jakin izan duen herria dugu.
Euskadin emango ditugun azken kilometro hauetan, zenbait herri zeharkatuko ditugu, hala nola Las Delicias, Alonsotegi, Gueñes edo Zalla, eta bertan ezkutatzen den ondare ezezaguna gure zain izango dugu harrituta utzi gaitzan, ia azken aldiz oraingoan.
Etaparen amaierara iritsi baino zertxobait lehenago, Terreros Dorreak edo Urrutia Jauregiak, adibidez, agur geldo baina halaber zoragarria emango digute.
Erromatar galtzadak markatzen digun bidetik Mena haranean sartuko gara, Burgosko lurretan barrena jarraitzeko, gure azken helburura iritsi arte, Santiago Konpostelakora.

*El* **Camino Olvidado** *emprende su primer día en el mismo corazón del territorio vizcaíno. Esta etapa nos acercará a Balmaseda, primera villa por fundación de este Territorio Histórico. Una localidad que ha sabido conservar su rico patrimonio histórico y artístico a lo largo de los siglos.*
*En el devenir de estos últimos kilómetros por Euskadi, atravesaremos las localidades de Las Delicias, Alonsotegi, Güeñes o Zalla, donde el desconocido patrimonio que en ellas se oculta nos espera para sorprendernos casi por última vez.*
*Poco antes de alcanzar el final de la etapa, la Torre Terreros o el Palacio de Urrutia, se encargarán de darnos una lenta pero maravillosa despedida.*
*Siguiendo el camino que nos marca la calzada romana nos adentramos en el valle de Mena para continuar por tierras burgalesas hacia nuestro objetivo final, Santiago de Compostela.*




DONEJAKUE BIDEA
*CAMINO DE SANTIAGO*

PARKE NATURALAK
*PARQUES NATURALES*

PARKETXE
*CASA DE PARQUE*

URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA
*RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI*

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA
*GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA*

IBILBIDEAK
*PASEOS*

BIDE BERDEAK
*VÍAS VERDES*

INAZIOTAR BIDEA
*CAMINO IGNACIANO*

TRAIL ESTAZIOA
*ESTACIÓN DE TRAIL*

BIRDING EUSKADI

CENTROS BTT EUSKADI ZENTROAK

SURFING EUSKADI

SENDERISMO EUSKADI

GR 38
ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA
*RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO*

GR 283
IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEA
*RUTA DEL QUESO IDIAZABAL*

## Ezinbesteko 10ak
## Los 10 imprescindibles de Euskadi




www.euskadituriamo.eus

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak. Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.

Son muchos los motivos que hacen de Euskadi un destino imprescindible. Lo vas a comprobar cuando conozcas su gente, su historia y su rico y variado patrimonio y aún mejor cuando lo comentes en torno a una buena mesa.

## EUSKADIRA DATOZEN TURISTA ETA BISITARIENTZAKO GIZABIDE DEKALOGOA
## DECÁLOGO DE CIVISMO PARA TURISTAS Y VISITANTES DE EUSKADI

Ondare naturala eta kulturala herri guztiena da, goza ezazu, gorde itzazu haien balore unibertsalak eta saihestu haien biziraupena arriskuan jar dezaketen eragin negatiboak.
*El Patrimonio Natural y Cultural pertenece a todos los pueblos, disfrútalo, preserva sus valores universales y evita impactos negativos que comprometan su supervivencia.*

Ez sartu espezie inbaditzailerik eta ez hartu babestutako flora eta fauna, ezta espezie horietatik eratorritako produkturik ere. Ez atera materialik interesekoak diren eraketa geologikoetatik.
*No introduzcas especies invasoras ni adquieras flora y fauna protegida, ni productos derivados de dichas especies. Tampoco extraigas material de las formaciones geológicas de interés.*

Ekidin zarata egitea balio natural eta kultural handiko guneetan eta ez eragin soinu-distortsiorik.
*Evita el ruido en las zonas de mayor valor natural y cultural y no introduzcas distorsión acústica.*

Ez egin surik, horretarako egokitutako guneetan izan ezik; ez bota zigarrokinik zorura, itzaltzeko zailak izan daitezkeen suteak eragin baititzakete, bereziki basoetan eta eremu menditsuetan.
*No hagas fuego, salvo en las zonas habilitadas para ello, ni tires colillas al suelo ya que podrían provocar incendios difíciles de sofocar especialmente en zonas boscosas y áreas montañosas.*

Ez kontsumitu beharrezkoa den baino ur eta energia gehiagorik, eta kudeatu hondakinak modu arduratsuan, hau da, ez utzi zaborrik edozein lekutan eta erabil itzazu bereziketa selektiborako edukiontziak.
*No consumas más agua y energía de la necesaria y deshazte de los residuos de forma responsable sin dejar basura a tu paso, utilizando los contenedores de separación selectiva.*

Erabili ahalik eta gutxien autoa edo motorra. Joan oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ahal duzun guztietan.
*Minimiza tus desplazamientos en coche o en moto. Organiza traslados a pie, en bici o con transporte público siempre que puedas.*

Aukeratu establezimendu turistiko arduratsuak, hau da, birziklapenaren, energia eta ura aurreztearen, eta tokiko komunitatea zein ondare naturala eta kulturala errespetatzearen alde egiten dutenak.
*Elige establecimientos turísticos responsables que tengan en cuenta el reciclaje, el ahorro de energía y agua, y el respeto a la comunidad local y al patrimonio natural y cultural.*

Ahal baduzu, kontsumitu tokiko produktuak; bertako gastronomiaz, kulturaz eta artisautzaz gozatzeaz gain, ingurua babesten eta garapen jasangarria sustatzen lagunduko duzu.
*Si tienes ocasión consume productos locales, porque además de disfrutar de la gastronomía, cultura y artesanía locales, estás contribuyendo a la conservación y desarrollo sostenible del entorno.*

Errespetuz trata itzazu besteak, haien duintasuna gordez, berdinetik berdinera.
*Trata a las personas con respeto, preservando su dignidad, tratándolas de igual a igual.*

Hedatu bisitatzen duzun inguruaren edertasuna eta interesa; izan ere, turismo arduratsuaren alde egiten baduzu, denboran zehar iraungo du.
*Difunde la belleza e interés del entorno que visites, ayudando a que un turismo responsable en la zona, contribuya a su mantenimiento a lo largo del tiempo.*




# BARRUALDEKO BIDEA
# EL CAMINO DEL INTERIOR

**179,1** km / **7 Etapak** Etapas

**DESKARGATU HEMEN BARUALDEKO BIDEKO ETAPA BAKOITZEKO TRACKAK ETA FITXAK**
DESCÁRGATE AQUÍ LOS TRACKS Y LAS FICHAS DE CADA ETAPA DEL CAMINO DEL INTERIOR




## IKURRAK — *SIMBOLOGÍA*

| IKURRAK | | SIMBOLOGÍA |
|---|---|---|
| Jatetxeak | 🍴 | *Restaurantes* |
| Ostatuak | 🛏 | *Alojamiento* |
| Turismo-Bulegoa | i | *Oficina de turismo* |
| Ospitalea | + | *Hospital* |
| Eraikin erlijiosoa | | *Edificio religioso* |
| Monumentuen interesa | | *Interés monumental* |
| Interesgunea | | *Punto de interés* |

OHARRA
Denborak kalkulatzeko, desnibel positibo eta negatibo metatuan eta MIDE Txangoetarako Informazioaren Metodoaren araberako distantzian oinarritu gara

*NOTA*
*Tiempos calculados a partir de desnivel positivo y negativo acumulado y distancias según MIDE (Método para la Información De Excursiones).*

## 1 Irun ▶ Hernani

26,2 Km. | 863 m. | 7h




Bidasoa ibaia Txingudi badian itsasoratzen, horixe izango da erromesak Kantauri itsasoa ikusiko duen aldi bakarra. Aurrerakoan, Gipuzkoa barnealdeko herriak ikusiko ditu, haranak alderik alde zeharkatu eta Santiagomendi gisako mendixkak igo, Euskal Herriko orografia ederra miresteko. Ibilbidean tartekatuko dira landaguneko bakea, pinudiz eta larrez inguratua, eraikuntza berriko industrialdeak eta lurralde historikoko hiriburu den Donostiaren sarbideak. Erromesak bidea uzteko aitzakia erakargarri asko topatuko dituen arren, besteak beste, Aiako Harria –hegoaldera begirako haitz biluziak–, monumentu megalitiko asko, edo urtarriletik aurrera, Astigarragako sagardotegiak, inguru are hobeak ikusiko dituenez, aurrera egingo du.

*La desembocadura del Bidasoa en la bahía de Txingudi será el único contacto con el Cantábrico y sus aguas que tendrá quien camina. A partir de ahora, comienza un recorrido por pueblos del interior de Gipuzkoa, sorteando transversalmente varios valles y ascendiendo a pequeños montes como Santiagomendi, que nos brindarán fantásticas panorámicas de la orografía vasca. El paseo basculará entre la inocencia rural del caserío, sitiado por pinares y pastos; los polígonos industriales de nuevo cuño y los viales de acceso a la principal ciudad del territorio histórico, San Sebastián. Aunque quien peregrina encontrará numerosas y apetitosas distracciones como Aiako Harria (Peñas de Aia) –esos farallones pelados que despuntan al sur–, varios monumentos megalíticos o, a partir del mes de enero, las sidrerías de Astigarraga, la promesa de ver escenarios aún mejores, dirigirá sus pasos.*

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

## 2A Hernani ▶ Tolosa

19,3 Km. | 270 m. | 4h 30'




Hernani uztean, aurrerago zehazten diren aukeren artean erabaki behar da; Oriarena, hasieran profil erraza duena, edo Saiatzena, ederragoa eta, aldi berean, gogorragoa dena. Lehenengoa aukeratuz gero –Oriaren ibilbidea– hemendik haran eta ibairik ibai ibili beharko da (Bidasoa, Oiartzun eta Urumea) Andoainera iritsi arte. Bertan beste bi ibai topatuko ditugu: Leitzaran eta Oria, emari handiagokoa eta datozen bi egunetan lagun izango duguna. emendik aurrera ikusiko ditugu Errege Bideko herri historikoak. Bide horixe zen Gaztelako lautaden eta Europaren arteko lotura nagusiena. Industria garapenaren eragin handia ikusiko dugu halaber ibilbide honetan.

*Al abandonar Hernani, se ha de elegir entre la variante que desglosamos a continuación (que denominaremos la del Oria), con un arranque de suave perfil, o la alternativa de Saiatz, más hermosa pero, también, más exigente. Si se decanta por la primera -Oria-, le tocará saltar de valle en valle y de río en río (Bidasoa, Oiartzun y Urumea) hasta llegar a Andoain, donde se unen otras dos arterias fluviales: el río Leitzaran y el Oria, más caudaloso y cuyo rastro seguirá durante un par de días. Es a partir de ahora cuando se atravesarán algunos pueblos históricos ligados al Camino Real, aquella senda que, durante siglos, fue el principal nexo de unión entre las mesetas castellanas y Europa. Las huellas del progreso y del desarrollo industrial serán más que patentes a lo largo de este recorrido.*

## 2B Hernani ▶ Bidania

28,8 Km. | 1250 m. | 8h 15'




Aipatu dugun beste aukerak –Saiatz ibilbideak– Aizkorri mendilerroraino garamatza, Gipuzkoa eta Araba arteko mugara, alegia, Oria haraneko mendebaldeko mendiak gaindituta. Ibilbide bikaina da Kantauri itsasbazterraren –urrutian– nahiz lurralde historikoko mugarri natural nagusienen, Hernio mendia edo Saiatz inguruak, kasu, bista ezin hobeak eskaintzen baititu. Hernani edo Lasarte-Oria kenduta, kilometroak egingo ditugu herriguneetatik landa, pinudi eta hariztietan barrena bide beti itzaltsuetatik, baserri bakan batzuk baino ez dituzten muino berde biluziak zeharkatuz. Kilometro horietan Euskal Herriko paisaiari dagozkion topikoak ikusiko ditugu, barnealdeko monumentu ondarea urria baita

*Esta alternativa -Saiatz- que conduce hacia la sierra de Aizkorri, frontera natural entre Gipuzkoa y Álava, trepa por las montañas que cierran el valle del Oria por el occidente. Lo grandioso de este trayecto son las panorámicas que regala tanto de la costa Cantábrica –en la lejanía-, como de los principales hitos naturales del territorio histórico, como el monte Hernio o las estampas de Saiatz. Tras el paréntesis de los primeros pueblos como Hernani o Lasarte-Oria, se abandonarán, durante varios kilómetros, las riberas urbanizadas para sumergirse en bosques de pino y roble, caminos siempre en penumbra y verdes colinas rapadas, apenas habitadas por caseríos solitarios. Serán varios kilómetros en los que los tópicos paisajísticos vascos tomarán el relevo al patrimonio monumental, modesto en estas tierras de interior.*

## 3A Tolosa ▶ Zegama

35,2 Km. | 598 m. | 8h 10'




Donejakue Bide osoan nekez aurkitu ahal da hainbeste herri historiko hain kilometro gutxian. Tolosa, Ordizia eta Segura herriek osatzen dute hirutasun bikain hori, Gipuzkoako haran aktiboena zeharkatzen duen etapa den honetan. Zidorrak aurrera egiten du Oria ibaiaren eta N-I errepidearen parean, haranerako bista ederrak eskaintzen dituzten bi igoera gogor gaindituta. Gastronomiari erreferentzia egin behar zaio nahitaez, bertako azoka tradizional sendoei eta jatorri izendapeneko eta kalitate handiko produktu tipikoei esker; esaterako, Idiazabal gazta. Badira denboran ez aurrera ez atzera geratu diren ezustekoak ere, Beasaingo Igartza multzoa kasu. Gaua igaro asmoz erromesa edozein lekutara doala ere, ziurrenik, atseden hartu eta indarberritzeko primeran etorriko zaizkion platerkadak dastatu ahalko ditu.

*Difícilmente se hallará en el peregrinaje a Santiago tantas villas históricas en tan pocos kilómetros. Tolosa, Ordizia y Segura forman una irresistible trinidad en lo que es una jornada marcada por el ajetreo propio del valle más activo de Gipuzkoa. El sendero corre paralelo al río Oria y a la Nacional I, con un par de ascensos exigentes que siempre son compensados con fantásticas panorámicas del valle. La gastronomía será una de las constantes, presente en vigorosos mercados tradicionales y en productos típicos con arraigo geográfico y de gran calidad, como el queso Idiazabal. También se esconde alguna sorpresa que parece varada en el túnel del tiempo, como el conjunto de Igartza, en Beasain. Allá donde arribe el caminante para pasar la noche, tendrá, seguramente, un buen puñado de sensaciones monumentales para ser rumiadas con placer.*

## 3B Bidania ▶ Zegama

34,3 Km. | 950 m. | 8h 50'




Bide zati honetan, indarrik gehienak Murumendi, tarte gipuzkoarreko oztopo geografiko handienetakoa dena, igotzen erabiliko ditugu. Zidorra lurralde historikoaren alderdirik landakoenean barrena dabil, Oria haraneko herriak alde batera utzita eta euskal kutsu nabariko landa-auzoetara hurbilduz. Era berean, argi geratuko zaigu zein garrantzitsuak izan diren ermitak horrelako eskualde malkartsu eta herrigune sakabanatukoak egituratzeko. Ikusiko ditugu Gipuzkoa magikoa –Ezkio-Itsaso, Andre Mariaren agerpen polemikoen herria–, meatzaria –Zerain eta Mutiloa, kasu– eta idilikoa, apenas urbanizatu diren inguruneetan. Berehala, Aizkorri mendilerroaren bestaldean, larreen berdea zereal-laboreen horia bihurtuko da. Harrizko erraldoiaren oinetan dago Zegama patxadatsua.

*Gran parte de las energías de este tramo se emplearán en ascender a Murumendi, uno de los principales accidentes geográficos del tramo guipuzcoano. Los senderos seguirán mostrando el rostro más campestre del territorio histórico, evitando las poblaciones del valle del Oria y acercándose a barrios rurales de inequívoco sabor vasco. Se confirmará, también, la importancia de las ermitas a la hora de vertebrar estas comarcas tan accidentadas y dispersas. Afloran varios guiños a la Gipuzkoa mágica -en Ezkio-Itsaso, tierra de polémicas apariciones marianas-, a la minera -en Zerain y Mutiloa- o a la idílica, palpable en un entorno apenas urbanizado. Pronto, el verde de los prados dará paso al amarillo de los campos de cereal que esperan al otro lado de la sierra de Aizkorri. Zegama descansa a los pies de este gigante pétreo.*

## 4 Zegama ▶ Salvatierra-Agurain

22 Km. | 895 m. | 6h




Agur Gipuzkoari, ongi etorri Arabari, biak soineko ederrenez aurkituko ditugun honetan. San Adriango tunela, urak eta denborak harrian higatutako haitzuloa, hori bezain muga ederrik kostata aurkituko dugu. Ia hamar mendez izan da Gaztelarako joan-etorriak egiten zituzten merkatari eta bidaiarien igaroleku. Egun, Aizkorri tontorrera doazen mendizaleak edo Arabako lautadarako bidean diren bidaztiak baino ez ditugu ikusiko. Tunela zeharkatu eta Erdi Aroko galtzada bikainetik goazela, paisaia zeharo aldatuko da. Arabako lautadak ez du zerikusirik Gipuzkoako haran sarriekin. Hemengo orografian gizakiaren esku hartzea nabariagoa da, lehorreko labore asko dago eta herriak nahi bezain zabalak dira, han hemenka jauretxe barrokoak eta errenazimendukoak erakutsiz.

*Gipuzkoa dice adiós; Álava da la bienvenida y ambos territorios visten sus mejores galas. Pocas fronteras hay más bellas que el túnel de San Adrián, una gruta excavada en roca por la acción del agua y del paso del tiempo. Durante casi diez siglos, fue un lugar frecuentado por comerciantes y viajeros que iban y venían de Castilla. En la actualidad, es atravesado por excursionistas que ascienden a la cima del Aizkorri o por transeúntes que marchan a la Llanada Alavesa. Una vez atravesado y enfilada la escultural calzada medieval, se arriba a otro mundo paisajístico. La Llanada Alavesa poco tiene que ver con los voluptuosos valles guipuzcoanos. Aquí la orografía está domesticada, abundan los cultivos de secano y los pueblos dormitan a sus anchas, salpicados de palacetes barrocos y renacentistas.*

## 5 Salvatierra-Agurain ▶ Vitoria-Gasteiz

27,4 Km. | 97 m. | 6h




Erromesak lasai arnasa hartu dezake: Arabako lautada berrogeita hamar kilometro luze da, gutxi gorabehera, gizakiaren esku-hartze handiko lurretan egiten dena. Ez dago pendizik, ez mendigainik eta Vitoria-Gasteiz arteko tartea hirigune gutxi zeharkatzen duen horietakoa da eta bakartasun apur bat eta sorginduko gaituzten monumentu erlijiosoak eskainiko dizkigu. Euskal Herriko inguru hauek Gaztelako landazabalen antza dute. Gainera, aniztasun artistiko gehieneko eskualdean barrena goazela gogoan izan behar da: Lautadan ikusiko ditugu trikuharriak –Sorginetxe izenekoa kasu, Euskal Herriko liluragarrienetako bat dena– Arkaiako aztarna erromatarrak, Erdi Aroko Estibalizko Andra Mariren santutegia edota Aguraingo jauretxe errenazentistak.

*El caminante puede respirar tranquilo: la vaguada alavesa se prolonga durante medio centenar de kilómetros, con un terreno absolutamente domesticado. Sin pendientes, ni puertos, la travesía hasta Vitoria-Gasteiz es un agradable paseo con muy pocas concesiones urbanas, unas gotas de soledad y varios monumentos religiosos con duende. Este rincón del País Vasco guarda más semejanzas con las tierras de campos de Castilla. Estamos, también, ante una de las zonas más versátiles artísticamente hablando: en la Llanada tienen cabida manifestaciones prehistóricas como los dólmenes –el de Sorginetxe es uno de los más fascinantes del País Vasco-; huellas romanas como las de Arcaya; medievales como el Santuario de Ntra. Sra. de Estíbaliz o renacentistas, el caso de los palacetes de Salvatierra.*

## 6 Vitoria-Gasteiz ▶ La Puebla de Arganzón

22 Km. | 273 m. | 4h 15'




Arabako lautadako bide erraz eta atseginak amaitzear dira. Berrogeita hamar kilometro egin ostean ibilbide etzanetik barrena, San Migel gaina, datorren aldaketaren aurrerapena da. Erromesak Gasteiz eta bere hiri eta industriaguneak atzera utziak dituela, zidorrak zereale laboreen artera darama berriz ere, N-1 errepidearen alboan, aurreko egunen antzeko herri xume eta atseginak zeharkatuz. Euskadiko inguru horietako arte erromanikoak oraindik ere ezustekoren bat edo beste gordeta dauka guretzat, Armentian eta Billa Okan esaterako. Euskal Herria uzteko gutxi falta da, baina, lehenago, Trebiñu konderria zeharkatuko dugu; alegia, Burgos puska bat Araba erdian.

*Los bondadosos y apacibles paisajes de la Llanada Alavesa tocan a su fin. Tras más de medio centenar de kilómetros entre suaves perfiles, el Portillo de San Miguel es un telón montañoso que señaliza el cambio de tercio. Una vez el peregrino se despide de Vitoria-Gasteiz y abandona su armazón urbano e industrial, el sendero se sumerge de nuevo entre campos de cereal, mientras corre paralelo a la N-I y atraviesa pueblos sobrios y acogedores como los de las jornadas anteriores. El arte románico practicado en este rincón de Euskadi todavía reserva un par de gratas sorpresas en Armentia y Villanueva de la Oca. Queda muy poco para abandonar las tierras vascas pero, antes, se atraviesa el Condado de Treviño, un enclave burgalés en el corazón de Álava.*

## 7A La Puebla de Arganzón ▶ Briñas

27 Km. | 498 m. | 6h 20'




Argantzun atzean utzi ondoren, Estavillon, aukeratu egin beharko dugu bi ibilbide hauen artean: Santo Domingo de la Calzadara (Briñastik) doan bidea (ondoren xehatzen duguna), edo Armiñon eta Miranda de Ebro zeharkatu ondoren Burgosko hiribururaino zuzenean jarraitzen duen bidea. Modu batera edo bestera, Frantziako Bidera iritsiko gara, Barrualdeko Euskal Bidearen azken helburura. Errioxako aukerarekin jarraituz, erromesaldiaren lehenengo egunetan ohikoak ziren 'gora eta behera' etengabeak protagonista bihurtuko dira berriz ere ia hogeita hamar kilometro dituen zeharkaldi luze honetan. Behin Briñasera helduta, egunean zehar aurkitu ditugun lau ibaien irudia gordeko dugu begietan: Zadorra, Ihuda, Jugalez eta, azkenik, Ebro mitikoa. Haran-hondoetan pausatutako herri harresituak aurkituko ditugu, eta, horrekin batera, malda txikiko mendateak eta mendi-tontor zailago bat Burandon Gatzaga atzean uzten dugunean, Lobera mendatea. Azkenik, mendi-tontorra gainditu ondoren, beste erabateko eraldaketa izango du paisaiak: Arabako Errioxa agertuko zaigu, paisaia otzantzen duten mahasti ordenatuen lurraldea.

*Tras abandonar La Puebla de Arganzón, en Estavillo, se ha de elegir entre la variante que desglosamos a continuación (por Briñas) que se dirige a Santo Domingo de la Calzada, o la alternativa por Armiñón y Miranda de Ebro que continúa directamente hacia la capital burgalesa. De un modo u otro alcanzaremos el Camino Francés, objetivo final del Camino Vasco del Interior. Siguiendo la opción riojana, los continuos 'sube y bajas' a los que se acostumbró quien peregrina en las primeras jornadas, protagonizan de nuevo esta larga travesía de casi treinta kilómetros. Una vez en Briñas, se guardará en la retina la imagen de los cuatro ríos con los que se relacionará en la jornada: el Zadorra, el Ayuda, el Inglares y, finalmente, el mítico Ebro. Habrá pueblos amurallados posados en el fondo de valles, puertos de pendientes modestas y un pico más que exigente al abandonar Salinillas de Buradón, el portillo de la Lobera. Al final, tras superarlo, el paisaje sufre otra transformación radical: aparece La Rioja Alavesa, tierra de ordenados viñedos que domestican el paisaje.*

## 7B La Puebla de Arganzón ▶ Miranda de Ebro

17 Km. | 131 m. | 3h 40'




Alternatiba honi heldu nahi badiogu, Armiñonerantz desbideratu beharko gara etapa labur eta ibilbide samurreko batean, eta Arabako ibai garrantzitsuenetako biren ibilgua zeharkatuko du bideak mendebalderantz daraman noranzkoan, Zadorra eta Baia ibaiena, hain zuzen ere, hainbat zubi zoragarriri esker. Trebiñuko lurretan erromatarren bideari jarraikiz lehen tarte bat egin ondoren, Arabako Behe Harenetan sartuko gara eskualde horretako buru den Rivabellosa herritik, eta ondoren atzean utziko dugu Arabako Lurralde Historikoa, Miranda de Ebrora iritsita.

*Para optar por esta alternativa, en Estavillo habrá que desviarse hacia Armiñón en una etapa corta y de fácil trazado que, en su recorrido hacia el oeste, atraviesa los cursos de dos de los ríos más importantes de Álava, el Zadorra y el Bayas, vadeándolos por espléndidos puentes.*
*Tras un primer tramo por tierras treviñesas siguiendo el camino de los romanos, nuestros pasos se adentran en los Valles Bajos Alaveses con la localidad de Rivabellosa como centro neurálgico de la zona para, seguidamente, dejar atrás el territorio histórico de Álava alcanzando Miranda de Ebro*



## BIDEAREN GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES DEL CAMINO

1 Presta ezazu Euskal Autonomia Erkidegoan barrena doan zure ibilbidea eta ostatuak honako webgune hau kontsultatuz: www.euskadituriamo.eus
*Prepara tu itinerario por Euskadi y los alojamientos consultando la web www.euskadituriamo.eus*

2 Lor ezazu zure egiaztagiria Bidearen Lagunen Elkarteetan.
*Consigue tu credencial en las Asociaciones de Amigos del Camino.*

3 Presta ezazu motxila pisu handiegia saihestuz, eta aukera itzazu oinetako eroso eta egokiak.
*Prepara tu mochila evitando el sobrepeso, y escoge un calzado cómodo y adecuado.*

4 Seguruago ibiltzeko, jarraitu seinale ofizialei. Pintura horiko geziak seinale ofizialen osagarri izan daitezke, baina hainbat kasutan ibilbide ofizialetik desbideratzen dira.
*Por tu seguridad, sigue la señalización oficial. Las flechas de pintura amarilla pueden suponer un refuerzo para la misma, aunque en ocasiones se desvían del trazado oficial.*

5 Goza itzazu bidea, esperientzia, aurkitzen duzun jendea, bisitatzen duzun ondarea, gastronomia, paisaiak eta abar. Esperientzia bakarra da, eta halakotzat gozatu behar da.
*Disfruta del Camino, la experiencia, la gente que te encuentres, el patrimonio que visites, la gastronomía, los paisajes, etc. Es una experiencia única y como tal se debe saborear.*

6 Bidea bizikletaz egitea aukeratzen baduzu, kontsulta itzazu ibilbide alternatiboak honako webgune honetan: www.euskadituriamo.eus
*Si optas por hacer el Camino en bicicleta consulta los itinerarios alternativos en la web www.euskadituriamo.eus*

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/